

GARDENTASUNAREN ATARIA

1.- SARRERA

19/2013 Legeak, abenduaren 9koak, gardentasun, informazio publikoa lortu eta behar bezala gobernatzeari buruzkoak, 2. artikuluan xedatutakoaren arabera, Lehenengo Tituluko xedapenak honako merkataritza-sozietateei aplikatuko zaizkie: sozietatearen kapitalean herri-administrazioen edo beste herri-erakunde batzuen partaidetza, zuzena edo zeharkakoa, 100eko 50etik gorakoa duten horiei. OARSOALDEA, S.A. (aurrerantzean, OARSOALDEA) eskualdeko lau Udalek (Lezo, Oiztun, Pasaia eta Erreterriak) osatutako konpainia da eta guztien artean beren titulartasuna sozietatearen kapitalaren 100eko 100a da. Ondorioz, OARSOALDEAri Legea aplikagarria zaio.

2.- ERAKUNDE-, ANTOLAKETA- ETA PLANGINTZA-INFORMAZIOA

A.- OARSOALDEAren funtzioak

OARSOALDEA irabazi-asmorik gabeko eskualdearen garapen-agentzia bat da eta tokiko herri-sektorearen barruan sartzen da. Eskualdeko lau Udalek 1993. urtean eratu zuten eta sozietatearen estatutuen bigarren artikuluari jarraiki, eskualdearen garapen sozioekonomikorako eta biztanleen bizikiltatearen hobekuntzarako bideratuak dauden zereginak eta jarduerak burutzea du xede.

Sozietatearen helburua betez, OARSOALDEAK lan-orientabidearen, prestakuntzaren, enpresa-sorreraren, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen erreklamazioen, hiri-birgaitzearen eta abarren eremuetan zerbitzuak eskaintzen dizkie partikularrei. Era berean, enpresek zerbitzuak jasotzen dituzte honako arloetan: langileak hautatzea, finantzaketa, industria-lurzorua, enpresa-kudeaketa, etab.

B.- Araudi aplikagarria

OARSOALDEA sozietate anonimoa da eta, nagusiki, Merkataritza Erregistroan inskribatutako estatutuek nahiz Kapital Sozietateei buruzko Legeak, uztailaren 2ko 1/2010 Errege Dekretu Legegilearen bidez onartutakoak, xedatutakoaren arabera arautzen da.

Kontratazioaren arloan, OARSOALDEARI Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legea, azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen bidez onartutakoa, aplikagarria zaio, 3.1.d artikuluan xedatutakoarekin bat.

Kontratuak esleitzearen eremuan, OARSOALDEAK herri-administrazioaren izaera ez duen esleipen-ahalmena duenez, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen barruan III. Liburuko I. Tituluari dagokion II. Kapitulua aplikatuko zaio. Halaber, Kontratatzailearen Profilean argitaratuak dauden Kontratazioarako Barne Argibideei erreparatuko zaie.

Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legeak 20. artikuluan xedatutakoarekin bat, OARSOALDEAK sinatzen dituen kontratuak, herri-administrazioarekin egindakoak izan ezik, kontratu pribatuak dira eta ondorioei eta iraungitzeari dagokienez, Zuzenbide Pribatuak arautzen ditu.

C.- Antolaketa-egitura

OARSOALDEAK estatutuetan aurrez ikusi ostean, hurrengo organo kolegiatuak ditu:

- 1.- Lau Udal bazkideek osatutako Batzar Nagusia. Bakoitzak sozietatearen kapitalaren %25a du.
- 2.- Modu berean, lau Udal bazkideek osatutako Administrazio Kontseilua. Une honetan burutza Pasaiko Udalak eta idazkaritza Oiartzungo Udalak dute.

Estatutuz aipatu organo kolegiatuez gain, sozietateak zuzendari nagusia du eta kargua Fernando Nebreda Díez de Espada jaunak, Zuzenbidean lizentziatuak eta enpresen administrazioan nahiz kudeaketan masterra duenak, betetzen du. OARSOALDEARA iritsi baino lehen, Debegesan, Debarreneko Garapen Sozioekonomikorako Sozietatean, lan egin zuen. Fernando Nebreda jauna OARSOALDEA, S.A. 1993. urtean sortu zenetik da zuzendari nagusia.

Zuzendaritza Nagusipean honako Zuzendaritzak daude:

- Gerentzia-laguntzailea. Postu hori Beatriz Brosa Gómez andreak betetzen du eta, aldi berean, Kalitateko eta Komunikazio Sailaren eta Enpresa Txikiei Laguntzeko Sailaren zuzendaria da.
- Zerbitzu Ekonomikoen eta Giza Baliabideen Zuzendaritza Bakartxo Villar Iraola andrearen kargura dago.
- Enplegu Zuzendaritzan kargua Patxi Arrazola Soto jaunak betetzen du.
- Industria Sustapenaren Zuzendaritza eta Nazioarteko Kooperazio Zuzendaritza Fernando Nebreda Díaz de Espada jaunak, OARSOALDEAko zuzendari nagusiak, daramatza.
- Turismoaren Zuzendaritza Eider Calderón García andrearen kargura dago.
- Hiri Berrikuntza eta Mugikortasun Zuzendaritzaren burua Xabier Sánchez Arruabarrena jauna da.
- Kontsumo Zuzendaritzan kargua Anabel Sarasola Etxegoien andreak betetzen du.
- Euskara Zuzendaritza Joxe Luix Agirretxe Mitxelena jaunaren kargura dago.

OARSOALDEAren zerbitzuak zortzi sailetan banatuak daude:

- Hiri-berrikuntza eta mugikortasunaren saila.
- Enplegu-saila.
- Industria-sustapenaren saila.
- Enpresa txikiei laguntzeko saila.
- Kontsumo-saila.
- Turismo-saila.
- Nazioarteko kooperazioaren saila.
- Euskara-saila.

3.- EKONOMIA, AURREKONTU ETA ESTADISTIKARI BURUZKO INFORMAZIOA

A.- 2017. urtean egindako kontratuak (2017ko uztailetik iraila bitartean)

Erosketak zuzeneko esleipenaren bitartez (18.000 eurotik beherakoak):


Prestakuntza	456,77
Telefonoak	6.959,45
Garraioa eta mezularitza	969,33
Bulegoko materiala	1.169,09
Alokairuak	7.068,49
Publizitatea eta propaganda	34.153,47
Zerb. profesional indepen.	80.127,03
Hornidurak	5.862,54
Konponketa eta kontserbazioa	12.203,09
Garbiketa	10.047,73
Beste gastu batzuk	11.606,85
Langabetuentzako prestakuntza-ikastaroak	31.664,79
GUZTIRA	202.288,63

18.000 eurotik gorako erosketak: (prozedura negoziatua – 3 eskaintza eskatzea): denboraldi honetan ez dira egin

50.000 eurotik gorako zenbatekoa duten erosketak: denboraldi honetan ez dira egin.

DATU ESTATISTIKOAK

PROZEDURA	AURREKONTU-BOLUMENA
Zuzeneko esleipena	202.288,63
Prozedura negoziatua	0



B.- 2017. urtean sinatutako hitzarmenak (2017ko uztailetik iraila bitartean):


OARSOALDEAK HITZARTUTAKO OBLIGAZIO EKONOMIKOAK			
ALDE SINATZAILEAK	XEDEA	EPEA	ZENBATEKOA
Maite Viaña Balda	Taller Ocupacional Ereiten 2017	2017/09/01 - 2017/12/31	15.984,00

C.- 2017. urtean emandako diru-laguntzak eta laguntzak (2017ko uztailetik iraila bitartean): epe honetan ez dira eman.

D.- 2017. ekitaldirako aurrekontua.

	EUSKO									
	KOSTUA	JAURLARITZA	FORU ALDUNDIA	ESTATUA	EUROPA	BESTEAK	ERRETERIA	LEZO	OIARTZUN	PASAI
INDUSTRIA SUSTAPENA	195.090,01	20.160,00	35.000,00	0,00	0,00	17.433,84	31.813,35	29.251,76	30.624,04	30.807,01
ETL	396.255,28	2.900,00	35.710,48	0,00	0,00	61.011,90	88.225,53	64.768,62	69.530,49	74.108,24
ENPLEGUA	1.082.756,78	395.386,00	142.000,00	0,00	0,00	30.158,03	199.359,18	80.170,08	100.780,52	134.902,98
KONTRATAZIO PROGRAMAK	169.724,52	60.000,00	34.000,00	0,00	75.243,01	0,00	240,75	48,15	72,23	120,38
TURISMOA	477.205,22	33.000,00	25.000,00	0,00	0,00	24.291,60	122.432,61	59.305,40	69.855,86	143.319,75
HIRI BERRIZTAPENA	140.988,43	0,00	0,00	0,00	0,00	3.926,95	47.713,01	22.185,50	31.881,55	35.281,41
EKHBP	30.093,87	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	30.093,87	0,00	0,00	0,00
OMIC-KIUB	113.189,55	45.000,00	0,00	0,00	0,00	3.152,67	26.448,65	9.763,39	12.459,46	16.365,38
ASAP	15.741,12	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	15.741,12	0,00
EUSKARA	184.503,61	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	71.880,92	29.385,14	37.111,65	46.125,90
	2.805.548,39	556.446,00	271.710,48	0,00	75.243,01	139.975,00	618.207,88	294.878,05	368.056,92	481.031,06

EUSKO JAURLARITZA	FORU ALDUN	ESTATUA	EUROPA	BESTEAK	ERRENT.	LEZO	OIARTZUN	PASAIA
20%	10%	0%	3%	5%	22%	11%	13%	17%



2017KO OARSOALDEAREN AURREKONTUA PARTIDEN ARABERA.

Soldatak eta ordainsariak	563.575
Gizarte Segurantzaren enpresaren kargura	1.260.293
Bidaia-gastuak	15.000
Prestakuntza	7.200
Inbertsioak	32.036
Finantza-gastuak	52.503,75
Telefonoak	60.087,00
Garraioa eta mezularitza	4.625,50
Bulegoko materiala	23.660,40
Alokairuak	40.844,00
Publizitatea eta propaganda	5.878,00
Harpidetzak	62.660,00
Zerb. profesional indep.	12.491,25
Hornidurak	47.025,30
Konponketa eta kontserbazioa	18.484,40
Garbiketa	599.184,15
GUZTIRA	2.805.548

AURREKONTUAREN GAUZATZE-MAILA 2017/09/30ean

SAILA	Urteko aurreikuspena
-------	----------------------

INDUSTRIA SUSTAPENA	195.090,01
ENPRESA TXIKIEI LAGUNTZA	396.255,28
ENPLEGUA ETA KONTRATAZIO PROGRAMAK	1.082.756,78
TURISMOA	477.205,22
HIRI BERRIZTAPENA ETA MUGIKORTASUNA	140.988,43
EKHBP	30.093,87
OMIC-KIUB	113.189,55
ASAP	15.741,12
EUSKARA	184.503,61

2.805.548,39

GAUZATZE MAILA 2017/09/30	%
---------------------------	---

300.128,99	154%
313.678,10	79%
1.395.266,33	129%
324.145,91	68%
89.213,31	63%
0,00	0%
81.201,41	72%
11.805,84	75%
135.727,55	74%

1.901.632,81



F.- 2016eko urteko kontuak eta ikuskaritza-txostena.